



# Korrika Batzordeak hasi dira sortzen dagoeneko

**LASTERKALDIA** ▶ Martxoaren 10a eta 20a bitartean izango da, Orreagan hasi eta Bilbon bukatuz

**BI ESKUALDEETAN** ▶ Leitzaldean martxoaren 13an eta Tolosaldean martxoaren 16an pasatuko da ▶ 5

**IKER VACAS** ▶  
ARGI TEKNIKARIA

«Gogorra da Akelarrerren agur eguna gogoratzea»

Errealitatea onartu behar dela esan du ▶ 4

LEIRE MONTES



## Inauterietako karrozen eta konpartsen lehiaketako sarituak jakinarazi dituzte

**TOLOSA** ▶ Gaur emango dituzte ezagutzera publikoki; sari banaketa asteazken iluntzean izango da, udaletxeko udalbatzar aretoan ▶ 7

**TOLOSA** ▶



Edurne Barriola. I. ETXEBESTE

**Edurne Barriola, zaldia ikastera** ▶ 2-3

[www.saldias-miguel.com](http://www.saldias-miguel.com)

**Saldías Miguel**

- AUTOAK
- MOTOAK
- ETXEA
- ENPRESAK
- DENDAK
- ISTRIPUAK
- AUTONOMOAK
- MOTA GUZTIETAKO
- ASEGURUAK

Kotxe  
aseguruetan  
%60 ko  
beherapenak

Nafarroa Etorbidea, 12 behe • 20400 Tolosa • Tel. 943 651189/ 943 653462 - Faxa: 943 653462

www.tolosaldeko-hitza.info

**hitza**

TOLOSALDEKO  
ETA  
LEITZALDEKO  
ALBISTEAK SAREAN

- **Hizkuntzak:**
  - ★ Arabiera ★ Erdera (atzeritarrentzat) ★ Italiara
  - ★ Euskera ★ Frantsesa ★ Ingelera ★ Itzulpenak
- Maila guztiak, irakasle natibo eta kualifikatuak
- **Lehen hezkuntzatik batxilergora bitarteko ikastaroak:**
  - ★ Mate ★ Fisika ★ Kimika ★ eta abar
- Goiz, arratsalde eta larunbatetan

**Pausoka Akademia**

M.J Iraola, 2 behe • TOLOSA • mug.: 686971962 • Tel.: 943672448

**Behera galtzak!!!**

Garbera Merkatal Gunea  
Donostia

NI EZ NAIZ  
INOZOA

**Media Markt**

UZTURRETIK ▶  
XABIER TELLERIAKomunikazio  
faltaren  
kronika

**O**rain aste pare bateko kontua. Euskal herriko muturrik lehorrenera abiatu gara, kotxea bete jende. Lau mutil gazte sano kirolzale-ren txofer lanetan, neu zaharrena.

Joaneko bidaia hasi eta lehen momentuan, izan da berri-ketarik kotxe barruan. Baina dozena erdi kilometro egitera-ko, niri galdera erreper-torioa amaitu zait. Gazteen hitz jar-rioa, ia berriketan hasterako zegoen agortuta. Ezer esateko beharrik ez eta inoren berri jakiteko gogorik ere ez. Denak mutu. Isiltasun erabatekoa; ia funebrea. Eta aurrean oraindik berrehun kilometro egite-ko.

Deseroso sentitu naiz, egia esan; bidai lagunei errepara-tzen hasi eta aurikularrak jar-rita musika entzuten harrapa-tu dut ondokoa. Kotxe barruko ispilutik atzera begiratu eta beste bi beren musika *persona-la* entzuten haiek ere, nor-bera aparatuekin. Laugarre-na ez; belarri zuloak libre, ahoa zabalik, burua atzera, hau seko lo. Ohitura zahar eta teknologi berriak komunika-ziorako oztupo. Edo komunika-tzeko beharrik ez duenaren-tzat lagun aproposak. Anjel Lertxundiren liburuarekin be-zala sentitu naiz: Konpainia noblean.

Akordatu naiz adineko per-tsonak nolako erraztasunez ematen dizuten konbertsa-zioa; edozein itxarongelatan edo garraio publikoan berdin dio; 'atrentzia ez bada...' ba-tekin hasi eta galdeteka osatu arte. Bereak kontatu eta, batez ere, besteenak jakin, hitz egin eta entzuteko prest. Adinean dauden aldeak ez dira horre-tarako oztupo. Alde ederra hitz metzeko bidaia luze honekin.

Etxera bueltan, hurrengo bi ordutako nire bakardade jen-detsuari erremedioa jartzea erabaki dut; inori baimenik es-katu ez eta molestatzan dudan asko inporta gabe; irratia jarri dut; Ibarretxek Madrilgo Kon-gresuan egindako agerraldia-ren saioa, zuzenean eta ozen. Han ere, ordea, bakoitza bere *musikari* adi, eta besteek esan beharrekoari entzungor egi-nez.



## Amaitu dira Tolosako Inauteriak, eta orain lanera!

**ASTEKO IRUDIA** ▶ Astebete iraun dute aurten ere Tolosako Inauteriek. Ostegun Gizenetik Asteartita egunera bitarte, asko eta asko izan dira herriko gune ezberdinetan izandako ekitaldietan parte hartu duten eskualdeko eta eskualdetik kanpoko herritarrak —argazkian, Asteartita Egunean, karrozen

eta konpartsen lehiaketan ateratako ikuskizunetako bat, eta jendea hari begira—. Inauterietan oporrak izan dituztenei bukatu zaizkie jai egunak, eta berriz ere lanean hasteko garaia heldu da, hortaz. Oraindik ere Inauteri gosez geratu denak datorren urtera begiratzen hasi beharko du. I. ETXEBESTE

## EDURNE BARRIOLA ▶ AMAZONA

## «Gorputzarekin hizketan ari da zaldia etengabe; haien hizkuntza ikasi nahi dut»

Moxalak era naturalean hezitzen ikastera doa Argentina-ra bihar; izan ere, «ezin» dio aukera horri alde egiten utzi

## IRATXE ETXEBESTE

Zaldiak dira bere bizitza. Hori garbi dago. Mintzatu, jolastu egiten da haiekin, eta, batez ere, gozatu egiten du. Lasarte-ko hipodromoan aritu da lanean orain arte amazona gisa, eta orain, Argentina-ra joateko au-tera sortu zaionez, «ezin horri muzin egin». Bihar bertan jo-ango da Buenos Aires aldera. Itzulera, ordea, ez daki noizko izango ote den: «Han maite-minduz gero, sekula ez naiz bueltatuko», esan dio HITZARI irribarre artean Edurne Barriola amazona tolosarrak.

**Nondik nora Argentina-ra joa-teko aukera hori?**

Argentinarrak gazte bat etorri da aurten Lasartera, eta hipodro-moko lankide batzuk, tartean nik, harremana egin dugu ha-

rekin. Zaldiak modu naturale-an domatzen aritu izan da han; txundituta utzi gaitu bere me-todoekin. Orain, bere maisua-rekin ikastera gonbidatu gaitu, eta nire lagun Nora Oteiza eta biok goaz Argentina-ra.

**Zertan ariko zarete han?**

Oraindik ez dakigu, baina gi-zon hark berarekin lanean har-tzea da nire ilusioa, zaldiak do-matzeko erabiltzen dituen tek-nikak eta ikasteko.

**Hipodromoko lanak alde ba-tera utzi behar izan dituzu...**

Inolaz ere, ezin nion aukera ho-rrri uko egin.

**Zaldiekiko zaletasuna nondik datorkizu?**

11 urte bete arte zakurrekin nengoan zoraturata, eta 1993an *poney* bat oparitzea bururatu zitzaion aitari. Hurrengo urte-rako txikia geratu zitzaidan, eta

handixeago bat ekarri zidaten: *Roberto*. Urtetan bakarrik ari-tu nintzen berarekin; ez nuen inor zaldiei buruz hitz egiteko. Orain, pixka bat gehiago daki-dala, konturatzen naiz sekula-koak egiten nizkiola gizajoari.

**Berezia dirudi zuretzat...**

Asko zor diot *Roberto*-ri. Oso lasaia da, eta, era berean, per-sonalitate handia du. Dena ezagutzen gara elkarriz. Batera hazitu gara, finean.

**Zaldi bat edukitzea ez al zaizu bururatu?**

Argentinatik bueltan, agian, erosiko dut. Hala ere, ez dakit zenbat kostatuko zaidan *Roberto*-rekin dudana hori dena zaldiarekin berriz ere lortzea.

**Zein izen jarriko zenioke?**

Zaldiaren izakeraren edota ko-llorearen arabera erabakiko nuke; zaldia ikusitakoan.

**23 urte dituzu. Zaldien mundu hori ez al da gogorregia?**

Oso; gustatu egin behar. Hipo-dromoan, esaterako, bi ordute-gi genituen: negukoa eta uda-koa. 08:00etatik 16:00etara ne-guan eta 05:30etik 12:00etara eta 17:30etik 19:30era udan. Astuna da, bai, 04:30ean egu-nero jaiki behar hori. Baina egin egin behar da, udan goi-zeko hotzaz baliatu behar dela-ko zaldiak entrenatzeko.

**Zer lan egiten zenuen hipo-dromoan?**

Zaldiak garbitu, lotu, zepillatu, sillac jarri eta montatu. Gero, pistan entrenamendu saioak egin. Zaldiak egunero-egunero entrenatu behar dira, eta ho-rietako bakoitzak entrenamen-du pertsonala izaten du.

**Eta apustuei buruz, zer iritzi duzu?**

Ez naiz zale, baina ez dut kon-trako iritzirik; bakoitzak egin dezala nahi duena.

**Animaliei tratu txarrak ematen dizkietenei zer esango ze-niekiz?**

Animaliak zaindu egin behar dira, baina bere tamainan. Nor-bait zakur bat jotzen ikusiko banu atentzioa deituko nioke, astakeria egiten ari delako. Baina muga bilatu behar zaio ho-rrri, azken batean animaliak di-relako. Aitona zaharren egoi-tzara eramatea eta zakurra etxera ekartzea ez dago ondo.

## GUTUN@K



► izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

## 'Herri interesa'

1.- EAJ eta EA 'herriaren alde lanean' beti. 1979. urtetik Euskal Herriko erakunde desberdinetan gobernu lanetan ari dira, herriak eta hiriak etxebizitzaz bete dituzte. Gaur egun etxebizitzak egiteko aukerarekin lur-sail kalifikatu gehiago dago etxebizitza eskaera baino, eta, hala ere, etxebizitza arazo duela 25 urte baino askoz larriagoa da.

2.- Udal korporazioko kideak lantzen ari diren araudi berriaren eragin zuzena izango duen espekulazio arazo baten aurrean aurkitzen gara, eta arazo honi buruzko eztabaidari aurre ez egiteko, duela 19 urte gertatu zenaren inguruko trapu zaharrak zabaldu nahi dituzte. Uzta eta biberisten artean ez dago liskarrik, hemen inork inori ez dio 'kazike' deitu. Afera honetan, Begoña Lopez Ibarra-ko alkate ohia eta EA-EAJ-ko zinegotziak dira leporaino sartuta daudenak.

3.- Urriaren 5eko udalbatzaren erabaki zena eta abenduaren 21ean berretsi zena, ez

da etxebizitza eskaintza faltak dakarren arazoari aurre egiteko erabaki bat, gaur egun etxebizitzak daukan prezioak arazo gehiago sortzen du etxebizitza eskaintza faltak baino. Azpiko espekulatibo baten aurrean aurkitzen gara, kartara eginiko hirigintza da hau: batek eskatu, Udalak baimena eman. Udaletxean ordezkatuta dagoen beste alderdi politikorik ez da sartu joko honetan, ez legalik, ez ilegalik, ez legitimorik, eta ez ilegitimorik. EA eta PNV bakarrik gelditu dira, ordezkatzen duten gehiengo absolutu ilegitimoa bermatzeko sozio berriak bilatzen ere ez dira saiatu. PSOEko zinegotziek ere beraien jarrera gaitzetsi zuten, erabakiaren aurka azaldu ziren, egitasmoak hartzen duen dimentsioa ikusita arautegi berriaren berriak hartzeko aztertze gaia zela uste zutelako.

4.- Hirigintza karga handiak dituela eta 'herri interesa' duen ekimena dela esatea, eta hori aitzakiatzat hartuta egitasmoarekin aurrera jarraitzea ez da zilegizkoa, biberu-lurra, herri inguruan aurkitu genezakeen

lurretatik karga gutxiena dituen delako. Udaletxeari egin beharreko zesoak, inguruaren hiritartzea, aparkalekuak, ingurune berdeak eta erreka ondoko pasealekua ezin dira erantsitako kargatzat hartu. Inork ezagutzen al du azken urtetan eginiko ekimenik, zesiorik gabe, aparkalekurik gabe edo espaloirik gabe? Inoren burutik pasatu bada ere, gaur egun ezinezkoa da garai batean San Ingacio auzoan, Uzturre auzoan edo Euskal Herria kalean eraiki zen bezala eraikitzea.

5.- EA-EAJren izenean herriaren banatu, Consuelo Romeroren izenean egunkarietan argitaratu, eta Udalaren kontura banatu zen idatzian agertzen denez, Ibarra 600 etxebizitza berri behar omen dira, eta, gainera, arautegi berriko unitate guztietan hektareako 100 etxebizitza eraikiko omen dira. Egiatzen hau ezin da edonola egin, herri eredu berri bat proposatzen ari dira, daukagunaren oso desberdina, biberu bezala kalifikatutako 7 hektareatik 4etan etxebizitzak egin nahi dituzte. Baina

arazoa oraindik larriagoa da. Arau Subsidiario berriko Aurrerapeneko Agirian jasotzen denez, 13 hektarea okupatu eta ia 900 etxebizitza berri eraikitze asmoa dute. Zer proposatzen dute? Herria etxebizitzaz betetzea? Ibarra lo-herri bihurtu nahi al dute? Zer azpiegitura daukagu 6.000 biztanle baina gehiagoko herri batentzat? Nahikoa izango al da daukagun anbulategia? Eta haur eskola? Eta eskola? Eta kiroldegia? Eta Kultur Etxea? Zer gertatzen da azpiegitura berriekin? Eta zonalde berdeekin? Eta igerilekuarekin? Eta futbol zelaiarekin? Zer gertatuko da nekazal ustiapenekin? Eta piparrekin? Eta tomateekin?

6.- Idatzi horretan Errekondone baserriko jabeak buruz esaten diren benetan kezkatzen gaitu; mehatxu kutsua nabari da, babesik gabe utzi nahi dute baserriarra. Gutxiengo egoeran dagoen jabe batek ezin omen du 'herri interesa' duen egitasmo bat oztopatu, eta horretarako mekanismoak badaudela aipatzen dute, edo-

zein neurri hartzeko prest daudela, alajaina, herri honetan argi dago lehen mailako eta bigarren mailako nekazariak daudela. Consuelo Romerori, idatzia berea bada, edo Begoña Lopez, benetan idatzia berea dela ematen duelako, zera esan nahi genioke: aurrean izango gaituela. Herriarrok baditugula zuzenbidezko mekanismoak, defenditzea zilegi dena defenditzeko. Beko-bide inguruan Udalak burutu nahi duen arautegi aldaketa puntuala galditzeko eskatuz, Uzta herri plataformak dagozkion iradokizunak eta alegazioak aurkeztu ditu Udalean. Iradokizunek ez dute fruiturik eman eta orain alegazioak aurkeztu ditugu, eta hauek eraginik ez badute Foru Aldundira zuzenduko gara eta behar bada epaitegiataraz ere joko dugu. Beti berdinak irabazten duen eran, 'Herri interesa' defenditzen duen bakoitzean aurrean izango gaituzue eta herriarrok honen guztiaren jakitun izango dira.

AINARA OTAEGI ► IBARRAKO UZTA  
HERRI PLATAFORMAREN IZENEAN

**Zaldi batek ona irteteko nola-koa behar du izan zure ustez?** Gorputza nola daukan eginda, gaztetan larrean egon den edo ez, jaten duenak... guztiak dauka zerikusia. Jatorriari garrantzia handia ematen diote batzuek, eta genetikak ere badu zerikusia, baina ez da dena, ezta gutxiago ere!

**Zaldien munduan, dena ikasten al da noizbait?** Sekula ez. Eta dena dakiela dioenak bere bizitzako akats handiengan egin du.

**Jardun al zara inoiz animalia-  
ren bat mantsotzen?**

Argentinako lagunak erakutsitakoarekin bi moxal hezitu nituen hipodromoan, eta oso kontent nago egindakoaekin.

**Nola egiten da hori?**

Pazientzia handiarekin. Zaldiek beldur handia diote bakkardadeari, eta bakarrik baino, nahiago izaten dute ezezagun batekin egon. Horretarako, baina, lasaitasuna eman behar zaio, arrotza izanagatik eraso egingo ez diozula ikus dezan. Arriskua ikusten duen momentutik alde egiten du zaldiak, izan ere. Ikuiluan sartu eta geldi-geldi egoten naiz harren begien aurrean, hura gertura dadin nigana lehendabizi.

**Eta orduan?**

Usaindu egingo nau, eta, pixkanaka, ukitzen hasiko zait. Orduan da nire txanda: lasai-la-



IRATXE ETXEBESTE

sai gorputza ukitzen hasten naiz, eta moxalak hankak ukitzen uzten didanean badakit konfiantza osoa duela nigan.

**Beti gertatzen al da hori?**

Beti; matematikoa da.

**Gizakiak animalia-  
ren hizkuntza ulertu behar du, beraz, eta ez animaliak gizakiarena. Ho-**

**ri da defenditzen duzun komunikazio eredu?**

Horixe bera. Zaldia hizketan ari da etengabe gorputzarekin, eta nik haien hizkuntza ikasi nahi dut, hori delako animaliak mantsotzeko bide egokia. Garai bateko ganaduzaleek kolpea erakusten zaiela iritzen

## PERTSONALKI ►

► Tolosan jaioa ► 1982ko urtarrilaren 25ean ► Amazona lanbidez; jockey izatea gustatuko litzaioke ► Badaki, ordea, ezinezko duela, ez delako pisu aldetik ezarritako kopuruetan sartzen ► Animalia guztiak ditu gustuko, eta bestelako zaletasunen artean, argazkiak ateratzea, pintatzea eta irakurtzea aipatu ditu ► Parranda eta dantza ere bai

**Laborategi ikerketetarako animaliak erabiltzearen alde ala aurka?** Beharrezkoa da, zientziak aurrera egingo badu. Sufrimendurik eragin gabe egin ditzatela, hori bai. **Arrezza gogokoena?** Arabea, angloarabea edo ingelesa; mugituak direlako eta erresistentzia probetarako balio dutelako. **Zaldiez gain, beste animaliarik?** Zakur bat ere badut: Beltx. 11 urte ditu eta zahartuta dago gaixoa. **Zaldiei buruz gehiago jakiteko, nora?** Frantziara, Erresuma Batura edo Alemaniara; beste disziplina batzuk ikasteko, leku egokiak dira. Euskal Herrian nahiko atzera gaude oraindik.

## ANIMALIAK

«Aitona zaharren egoitza batera eramatea eta zakurra etxera ekartzea ez dago ondo; tamaina bilatu behar zaio horri»



diote, nire ustez oker daude oso.

**Zaldietatik bizimodua ateratzea erraza al da?**

Oso zaila, batez ere hemen kultura hori ez dagoelako ia. Hockey izanik ziurrenik bai, baina amazona gisa nekez atera daiteke bizimodua oraindik.

**Neska izateak oztoporik jarri al dizu inoiz lan horretan?**

Askok. Zaldien mundu hau oso matxista da; eta, era berean,

kontraesan handiagoa dago, zaldiak entrenatzeko emakumezkoak nahi izaten dituztelako askok, eskuak-eta leunagoak izaten ditugulako.

**Zaldiekin zerikusia duen lanik egin ezin bazenu, zer?**

Pena handia hartuko nuke, eta aisialdian ariko nintzateke zaldiekin. Hala ere, denetarako balio behar da mundu honetan, eta ez dut uste galduko nintzatekeenik.

IKER VACAS ▶ ARGİ TEKNIKARIA

# «Akelarren agurra gogoratzea benetan gogorra da niretzat»

Euskal kulturari hainbesteko eragina izan ondoren, kulturak berak atea ireki diela dio Iker Vacas tolosarrak



HITZA

## INIGO ASENSIO

14 urtetatik darama euskal talde ezberdinen argi teknikari gisa. TVE-1eko urte amaierako saioan aritu da lanean, eta baita La Fura del Baull's antzerki talde Kataluniarrarekin ere. Bere orain arteko ibilbideaz, Akelarre taldearen agurraz eta etorkizunaz mintzatu da HITZAREKIN 27 urteko tolosarra.

### Noiz hasi zinen argi teknikari gisa lanean?

14 urte nituela hasi nintzen. Basajaun taldeko Tomson nire bizilaguna zen, eta behin beraiekin argiak egitera joatea eskaini zidan. Ni, orduan, ume bat nintzen, baina baietz esan nion. Egun, asko daukat berari eskertzeko.

## ETORKIZUNA

«Espainiako estatuan eta handik kanpo bira egingo duen talde batekin lan egitea eskaini didate»

### 'GAZTE' GARAIK

«06:00etan Gure Txokoan lanean aritzetik itzuli, eta goizean klasera joan behar izaten nuen»

### Horren gaztea izateak arazorik suposatzen al zuen?

Oso garai berezia izan zen. Alde batetik nik ez nekien ezer, eta bestetik, argi teknikari bezala aritzea gustuko nuela ohartarazi behar nituen gurasoak.

### Basajaunen ondoren Egan iritsi zen, ezta?

Bai. Basajaunekin 16 urte arte aritu nintzen eta orduan Egan Berrian lan egitea eskaini zidaten; formazio hartan Oxeja Mendizabal bazegoen ordurako. Beraiek argi ekipo deigarria nahi zuten eta nigan pentsatu zuten. Salto handia suposatzen zuen niretzat. Garai hartako talde garrantzitsuenetako bat zen Egan, urteko 160 emandaldi ematen zituena.

### Eta zu oraindik ikasten...

Bai, hasi nintzenean amari egin nion promesa ikasten jarraituko nuela izan zen. 19 urterekin amaitu nuen elektronika eta elektrizitate ikasten; ordura arte lana eta ikasketak batera eramane behar izan nituen. Igandeetan, 06:00etan Gure Txokoan lanean aritzetik itzuli, eta goizean klasera joan behar izaten nuen. Behin, Berangon ginela, emanaldiaren aurretik ikasi, atsedendian ikasi, itzultzeko bidean ikasi, eta dutxa bat hartuta azterketa egitera joan nintzen. Kostata, baina amari eginiko promesa txikia bete nuen. Urte gogorrak izan

ziren, baina merezi izan zuela iruditzen zait; gerora begira ondo etorri zen esperientzia hura.

### Baina Eganen garai hura ere amaitu zen.

Bai, 19 urte nituen eta orduan Akelarren aritzea eskaini zidaten. Niretzat ametsa zen hura. Musikalki erreferentzia izateaz gain, argietan ere erreferentzia zen Akelarre. Lan handia suposatzen zuen zegoen maialara egokitzeak, baina ordurako nik garbi nuen hura zela nahi nuen. 19 urte besterik ez nituen, eta adinez, Markos (baxua) eta Pako (bateria) nire gurasoak izan zitezkeen; benetan arraroa egiten zen. Akelarrek erabiltzen zuten materialarekin asko hazteko aukera zegoen, proiektuak gauzatzeko modua. **Xabier Zubeldiari eginiko elkarrizketan, Akelarren soinua berezia zela zioen, estiloa markatu duela. Ez al da egia Akelarrek argien arloan ere estiloa markatu duela?**

Posible da. Akelarren beti eman izan diogu garrantzia handia bai soinuari eta bai argiari. Inigo Kruz ezagutzen dudana argi teknikari onenetakoa da. Kontzertuero ikuskizuna

ematen saiatu gara. Argitan bakarrik, 100.000 wattio erabiltzen genituen, eszenatokia handia ala txikia izan, eta hori kontrolatu egin beharra dago. Akelarren estiloa oso berezia izan da maila guztietan.

### Zer sentitzen da orain, agur esanda?

Larunbatekoa —urtarrilaren 22an Oialumen eginiko agurkontzertua— gogoratzea benetan gogorra da niretzat. Igandean lur jota ginen. Hainbeste urte eta gero Akelarre agurtzen milaka anekdota gogortzen hasi ginen eta ikaragarria izan zen. Guk hainbeste maitatu gunden plaza giroa galdu egin dela ikustea, plazak hutsik ikustea, azken urteotan ibili garen ehunka herritan eza gututako jendea berriz ez ikustea...

### Eta...?

Euskal kulturari hainbesteko eragina izan ondoren, kulturak berak atea ireki digu. Konponbide bat bilatu dugu, baina errealitatea onartzea besterik ez da geratu, agur esatea, alegia.

### Oroimenerako DVDa geratuta, gutxienez.

Bai, hasiera batean guretzat

grabazio bat egitea pentsatu genuen, baina jendeari azken oroigarria eskaini nahi izan diogu. Akelarre zer izan den gogoratzeo aukera izango dugu horrela.

### Zuri dagokizun aldetik, izugarriko ikuskizuna izan zen Oialumea.

Beno, egia esan jendea oso gustura geratu da. Bertan izugarriko argi eta soinu festa zegoen. Lehendabiziko erabili genuen argi digitala: mahaitik Macintosh-a kontrolatuz, proiektio mugikorrek egiteko aukera ematen du. Hilabete pasatu nuen guztia programatzen eta prestatzen. Euskal Herrian, lehen aldiz erabili genuen guk puntako teknologia hori.

### TVE-1eko urte amaierako saioan aritu zinen, eta baita La Fura del Baull's antzerki taldearekin ere. Zein proiektu duzu aurrera begira?

Bai, TVEko urte amaierako saioan eta La Fura del Baull's-en ikuskizunean, lehen aipatutako argi digitala erabili nuen. Argi hori erabili nahi duen talde garrantzitsu batekin lan egitea eskaini didate. Espainiako estatuan eta handik kanpo bira egingo duena; ikusiko dugu.

hirukide  
KALITATEZKO HEZKUNTZA

LASKORAIN IKASTOLA  
Kalitateko Heziketa Euskalduna eta cleanitza

www.laskorainikastola.net

EUSKARA ▶

# Hasi dira Korrika Batzordeak sortzen bi eskualdeetan jada

Martxoaren 10etik 20ra da; Leitzaldean 13an eta Tolosaldean 16an pasatuko da

JOXEMI SAIZAR

Badator Korrika. Bi urtez behin Alfabetatze Euskalduntze Koodinakundeak (AEK) euskarren alde antolatzen duen lasterkaldiak 14. edizioa beteko du aurten. Orreagatik (Nafarroa) martxoaren 10ean abiatu eta 2.350 kilometro egin ondoren Bilbora iritsiko da martxoaren 20ean. *Euskal Herria euskalduntzen; ni ere bai* leloa izango du aurten eta omen-duak, orohar, euskaldunberri guztiak izango dira eta horien ordezkari gisa iaz hil zen Andolin Eguzkitza euskaltzaina.

Hilaren 13an Leitzaldera iritsiko da goizaldeko 3:30ak aldera, Goizuetatik, eta 16an Tolosaldera Goierritik, ondoren Donostia aldera jarraitzeko. Ikaztegiatan ordubiak aldera sartuko da; Alegian, 02:20ean; Tolosan, 02:45ean; Ibarra, 03:00etan; Tolosan berriro 03:10ean, Anoetan 03:25ean; Iruran, 03:40ean; Villabonan, 03:55ean; Zizurkilen, 04:05ean eta, azkenik, Adunan ere goizaldean, 04:10ean.



ARITZ LARRETA  
ESKUALDEKO KOORDINATZAILEA

«Korrika herri guztietatik ez da pasatuko, baina denetan egin daiteke zerbait bere alde»



Jendea Korrikaren azken edizioan, duela bi urte, Ibarra. N. AZURMENDI

## Asteazkenean, bilera

Ekitaldia behar bezala antolatzeko, talde handi bat behar da lanean. Horien artean, Tolosaldeko arduraduna —Ikaztegiatik Andoainerako eremuan— Aritz Larreta amezketarra izango da. Orain arte bi bileratara deitu ditu eskualdeko hainbat euskaltzale. Lehena Inauteri aurretik egin zuten eta Aduna, Anoeta, Hernialde, Ibarra, Irura, Tolosa eta Orexako jendea agertu zen. Bigarrena aste honetan izan da eta Baliarrain, Ikaztegieta eta Lizartzako ordezkariak agertu dira. Amezketan eta Zizurkilen ere talde txo bana ari da lanean.

«Pozik nago bileretan azaldu duten interesa eta jarrera onarekin. Beste hainbat herritako jendearekin ere harremanetan jarri naiz, eta, batzordea ez badute osatzen ere, herri guztietan arduradunen bat izatea nahiko nuke», adierazi dio HITZARI Aritz Larretak. Hurrengo bilera datorren asteazkene-

an, hilak 16, izango da Tolosaldeko AEK-Arramele euskaltegiaren (Kale Nagusia 7, 2. pisua), 20:00etan. Koordinatzailearekin hitz egiteko 943 59 17 04 edo 655 71 51 80 telefonoetara deitu edo andoin@ae.net helbide elektronikora idatz daiteke.

Herri bakoitzeko batzorde edo arduradunaren eginbeharrak Korrikaren inguruan herria informatzea eta girotea, ahal bada ekitaldiren bat antolatzeko eta diru bilketan laguntzea dira. Euskal Herri mailako Korrika Kulturalaren barruan, otsailaren 25ean *Ezequiel* antzezlan eskainiko dute Tolosaldeko Leidor zineman, 20:30ean.

Eskualdera iritsiko den ordutegia dela-eta —goizaldean aste egun batez—, beste urteetan bezala, hainbat herritan ikastetxeek antolatutako Korrika txikiak izango dira, ikasleen parte-hartzearekin. Hainbat elkartetan Korrikaren inguruko herri afariak eta jaialditxoak ere antolatzekoak dira. «Bada-

kit Korrika herri guztietatik ez delako pasatuko. Hori ezinezkoa da. Baina denetan egin daiteke zerbait Korrikaren alde», azaldu du Larretak.

## Laguntzeko moduak

Azkenik, Korrika laguntzeko modu asko daudela esan behar da. Diruz hiru modutara lagun daiteke: kilometroa erositik Udalek, ikastetxeek, elkarteek, talde politikoek, langileek... —320 eurotan—; enpresa edo dendak Korrika Lagun eginez eta diru laguntzaren txartela jasoko dute; eta Korrika Laguntzaile eginez, 12 euroren truke, pin-a eta txartela jasoko dute eta Euskal Herriko 300 denda baino gehiagotan beharpenak izango dituzte.

Materiala erositik ere lagun daiteke —koordinatzaileari eskatu behar zaio—: Irungo beterranoen eta Korrikako abestiarren CDak, metxeroak, kamisetak, bideoa eta DVDa... Azkenik, batzordean parte hartuz, ekitaldietara agertuz, petoa erositik furgonetan, diru bilketan... ere lagundu daiteke.

Informazio gehiago, lehen aipatutako telefonoetan eta [www.korrika.org](http://www.korrika.org) webgunean.

## DATUAK ▶

**Zer da Korrika?** AEK-k Euskal Herri osoan egiten duen euskarren aldeko lasterkaldia. Gure hizkuntzaren aldeko kontzientzia suspertzea eta gau-eskola zein euskaltegien eguneroko lana indartzeko dirua biltzea du helburu. 1980an Oñatitik Bilbora egin zen lehen aldiz. Orduetik euskarren alde antolatzen den ekitaldirik jendetsuena eta garrantzitsuena da; 600.000 lagunetik gorak parte hartu izan du.

**Zer da AEK?** Alfabetatze Euskalduntze Koodinakunde, helduen euskara irakaskuntzan diharduen erakundea da. Milaka ikasle izan ditu azken urteetan, ehunka euskaltegi kokaturik, Euskal Herri osoan. Alor horretako erakunderik hedatuena da.

**AEKren historia.** 1965 inguruan sortu ziren lehen alfabetatze taldeak. 1974-75 ikasturtean Gipuzkoan gau-eskolen elkarte sortu zen, Nafarroara eta Iparraldera ere hedatu zen eta 1976an Bizkaikoek koordinatzea erabaki zuten eta AEK izena hartu zuten. Gero Hegoalde osokoak koordinatu ziren. 1979an lehen mintegia egin zen. Iparraldean 1980an sortu zen ofizialki. Gaur egun, 100 euskaltegi eta 600 irakasle ditu Euskal Herri osoan zehar.

**AGUSTIN-ENEA**  
JATETXEA

**Gora Inauteriak!**

Euskal Herria plaza, 6 • TOLOSA • Tel.: 943 65 10 59

**LS La Salle Berrozpe ikastetxea**  
ANDOAIN  
La Salle etorbidea, 5  
[www.lasalleberrozpe.com](http://www.lasalleberrozpe.com)

**"ATEAK ZABALIK" Matrikulazioak**

★ Eguna: 2005ko Otsailaren 16a  
★ Ordua/Hora: 18:00  
★ Lekua/Lugar: La Salle Berrozpe ikastetxean  
En el colegio La Salle Berrozpe

Zatoz gure DBH ezagutzera!

943 590 557

**UZTURPE UDAL HAUR ESKOLA**  
(0-3 urte)

**ATEAK ZABALIK ZATOZ!**

• Eguna: 2005ko otsailaren 15 a  
• Ordua: 18:00  
• Programa:  
• Bideo emanaldia  
• Antolaketa eta proiektuak  
• Gelen erakusketa

Uzturpe Udala Haur Eskola.  
San Inazio auzoa. IBARRA  
Tel.: 943 67 12 99

GIZARTEA ▶

# Laguntzak iristear

Gaur bidaliko dute sahararren aldeko karabanan bildutako janari eta materiala; aurrekoekin konparatuz, antzerako emaitzak izan ditu aurtengo bilketak



Tolosaldea Sahararekin elkarteko kideek, Tolosan duten lokalean, bildutakoa kamioian sartzen jardun zuten unea. NOELIA LATABURU

IÑIGO TERRADILLOS

**A**benduan eta urtarrilean egindako janari bilketak eman ditu fruituak. Izan ere, joan den urtarrilaren 31n kargatu zuten kamioietan Tolosaldean bildutako guztia, gaur Sahara bidean jartzeko.

*Sahararen aldeko euskal karabana: piztu itxaropena.* Hori izan da aurtengo janari bilketaren leloa. Saharako herriarekiko elkartasunerako euskal elkarrekin antolatatu dute, Fronte Polisarioak Euskal Herriaren duen ordezkaritzarekin batera eta euskal fondoaren Sahara koordinazio unitatearen laguntzarekin.

Aurtengo janari bilketak koordinazioa izan du berrikuntza bezala; euskal elkarrekin horiek Euskal Herri mailan koordinatu dute karabana, indarrak bilizteko eta material gehiago bartzeko helburuarekin, jardunbideak aurreko urteetako berak izan badira ere.

Elkartasun kanpaina horren helburu nagusia, berriz, Saharako herriari ahalik eta janari gehien helaraztea izan da, Tindouf-eko (Aljeria) errefuxiatu kanpamentuetan dauden sa-

## PRODUKTU BILKETA ▶

	Hegaluzea	Azukrea	Konpresak
Merkatu Txikia	60	153	116
Samaniago	45	112	-
Orixe	10	22	-
Maxi Eroski	69	307	168
Asteasuko eskola	14	56	-
Zizurkil	-	45	-
Fleming ikastetxea	72	251	-
Bidaniako eskola	22	30	-
Leaburu	14	46	-
Ibarra	16	96	-
Ikaztegieta-Alegia	124	270	-
Amezketeta-Abaltzisketa-Baliarrain	62	174	122
Altzoko eskola	26	38	-
Lizartzako eskola	11	33	-
Laskorain ikastola	80	216	240
<b>Guztira</b>	<b>832</b>	<b>2.346</b>	<b>805</b>

hararrak janariaren aldetik pairatzen ari diren krisialdia, nolabait, arintze aldera.

### Aurtengoak utzitakoak

Aurtengo karabanan bildutakoa ikusita aurreko urteetako kopurua berdintzea lortu dela aipatu behar da, Tolosaldeko datuen arabera, herritarrek eman dutenarekin hori esan dezakegu, behintzat.

Hegaluzea, azukrea eta kon-

presak biltzea izan da bilketak iraun duen bitartean antolatzailerak eskatu dutena; hala ere, lekalea, zerealak, olio eta bestelakoak ere bildu dituzte. Hala, 19 kilo zereal, 130 kilo lekale, 11 kilo olio eta bestelako produktuetan 64 kilo zenbatu dituzte. Gainera, 2.346 kilo azukre, 832 kilo hegaluze eta 805 konpresa pakete zenbatu dituzte Tolosaldean Gipuzkoako beste bost herrietan bildutakoekin batera.

Herritarrek, enpresek edo erakundeek emandako bestelako materiala ere bidaliko dute gaur Saharara; hauen artean, batez ere, ospitaleetan erabiltzeko materiala da nagusi: dentistek erabiltzeko 3 ekipamendu, 2 ordenagailu, 2 idazmakina, ebakuntza geletarako material desberdina, osasungaietarako hozkailu bat, 4 kamila eta ohe bat, besteak beste.

Aiun wilayako eskoletara bidaltzeko arropa, motxilak, panpinak, jokoak, karpetak, 2 kaxa futbolarako ekipamenduarekin, baloiez beteriko 2 boltsa eta ordenagailu bat ere bildu dituzte Tolosaldeko Sahararekin elkartekoek.

Hauek guztiak, esan bezala, Sahararako bidean dira, gaur abiatu baitira. Aurretik, atzo, hain zuzen ere, Gasteizen, saharar festa antolatu zuten kanpaina behar bezala amaitzeko.

Parte hartu duten Tolosaldeko herritar guztiei eskerrak eman nahi dizkiete elkartekoei, laguntzak sahararrentzat inoiz nahikoak ez badira ere, guretzat ezer gutxi balio duena emanda bizitzan aurrera egin ahal izango dutelako.

TOLOSA ▶ AZOKA

## Berritasunak eta giro ona atzokoan aipatzekoak

Hotza nabarmena izan arren salmentak igo ziren; ogiaren prezioak gora egin du

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka animoso hasi zen goizeko lehenengo orduetatik, eta pixkanaka giroak epeltzen jarraitu zuen azkenengo ordura arte. Eroslearen kopurua joan den asteetako baino handiagoa izan zen, eta hotza nabarmena izan arren, salmentek gora egin zuten.

Berritasunak izan ziren nagusi. Aipatzekoak ardi gazta berria, orain dela hiru aste aurkeztutakoa baina aste honetan zabaldu eta generalki saldutakoa, gardua, Gabonetan ikusitakoa eta berritua bueltan etorri dena, eta artisaurogiaren prezio igoera. Igoera hau, denok dakigunez, urtero gertatzen da, hirinarekin prezio igoerarekin, eta aurturteko %4 igo da.

Arkumeak ere saldu ziren atzo, 3 kilokoak, hain zuzen.

## ATZOKO AZOKA ▶

	merk.	gares.
<b>Berdura plaza</b>		
Pinu insignis	0,17	-
Haritz amerikarra	0,70	1,00
Lilia	1,20	-
Krabelin txikia	3,60	-
Bazko lorea	6,00	8,00
Pensamintoa	1,00	-
Konifera	6,00	-
Azalea	3,50	10,00
Porrua	2,40	-

### Bertako produktuak

Oilaskoa (3 aste)	1,50	-
Indiolarra	4,30	-
Ahatea	2,50	-
Gaztaina	2,00	3,00
Intxaurra	3,00	4,00
Errezil sagarra	2,00	5,00
Tomatea	2,00	3,50
Tolosaldeko babaruna	8,00	12,00
Lebua	0,80	1,00
Ardi gazta	12,00	14,00
Arrautzak	1,30	2,10

### Produktu ekologikoak

Sagarra	2,00	3,00
Azenarioa	2,00	2,50
Arroza	1,90	2,00
Dilistak	2,40	-
Tipula	1,75	2,00
Erremolatxa	1,60	-
Aza	2,50	3,00
Azukrea	3,35	-

## iragarki laburrak ▶

**Telefonistak.** Harreragileak. Plaza libreak erakunde publikoetarako. Informazioa doan. 943 65 01 93 telefono zenbakira deituta.

**Ostalaritza.** Sukaldari laguntzaileak, sukaldariak, zerbitzariak. Plaza libreak: eskolak, egoitzak, Eusko Jaurilaritza. 943 65 01 93 telefonoa.

**Eraikuntza.** Igeltseroak, peoiak. Plaza finakoak Gipuzkoako udaletan. Informazioa doan. 943 65 01 93.  
**Gidariak.** Plaza libreak: eskolak, Eusko Jaurilaritza, Foru Aldundia. Informazioa doan. 943 65 01 93.  
**Haur Hezkuntza.** 1.200 plaza. Sarbidea libre. Informazioa doan.

Deitu honako telefono zenbaki honetara: 943 65 01 93.  
**Administrazio laguntzaileak.** Laster sarrerak udal hauean: Hernani, Usurbil, Irun, Beasain, Altzo, Bergara, Zorrales, Mutriku, Zizurkil, Mendara, Anoeta. Informazioa doan: 943 65 01 93.

**Mantenua.** Elektrikariak, iturginak, soldatzaileak, igeltseroak. Plaza libreak: erakunde publikoetan. Informazioa doan. 943 65 01 93.  
**Peoiak,** elektrikariak, iturginak, soldatzaileak, igeltseroak. Plaza libreak erakunde publikoetan. Informazioa doan: 943 65 01 93.

INAUTERIAK ▶



**Karroza.** 'El Korkobado y C.I.A.' karrozak giro ederra jarri zuen Brasilgo Inauteriak Tolosara ekarritz, Rio de Janeiroko Korkobado ezagunaren erreplika eta guzti. LEIRE MONTES



**Plataformadun konpartsa.** 'Baserría' izena du txapela eraman duenak. Baserría eta bertako bitzta ederki islatzen zituen. INIGO TERRADILLOS

# Lehiaketa berrituaren irabazleak

Inauterietako karrozen eta konpartsen lehiaketako sarituak jakinarazi dituzte

IMANOL GARCIA

Aurtengo Inauterietako karrozen eta konpartsen lehiaketa berrikuntzekin etorri da. Jakina denez, izena eman duten guztiek, eskatutako baldintzak bete ondoren, diru kopuru jakin bat jasoko dute. Irabazleek, gainera, txapela jasoko dute. Festa Batzordeak azaldu bezala, gaur, Piñata igandean, jakinarazi dituzte irabazleak. Txapela jasotzeko ekitaldia, berriz, datorren asteazkenean egingo dute, hilak 16, udaletxeko batzar aretoan, 19:00etan. Bestalde, Festa Batzordeak Inauterietako balantzea egiteko bilera deitu du etzirako, 19:00etan, Kultur Etxean.

Epaimahiaren osaketan ere berrikuntzak izan dira eta aurreten zazpi kidek osatu dute: karroza eta konpartsetako bost ordezkariak, Festa Batzordeko lehendakariak eta Tolosako Udalaren ordezkari batek. Lanak izango zituzten epaimahai-kideek izena emandako guztiak ikusteko. Guztira, 118 taldek eman zuten izena: 14 karroza, 15 plataformadun konpartsa eta 87 konpartsa.

Tolosako Udaletik jakinarazi dutenez, aste honetan zehar deseraiki behar dira plataformak. Datorren urterako balio ez dutenak ferialean bertan dagoen zakarretara bota be-



**Konpartsa A taldea.** Meategiko lanbide gogorra herriko kaleetaraino eraman zuten 'El tren de la mina' konpartsakoeak. HITZA



**Konpartsa C taldea.** Artxiboaren aurrean 'Demoda' konpartsa osatzen zutenek moda desfilea eskaini zuten. IRATXE ETXEBESTE

IRABAZLEAK ▶

- Karroza.** El Korkobado y C.I.A.
- Plataformadun konpartsa.** Patxinea baserría.
- Konpartsa A taldea.** El tren de la mina.
- Konpartsa B taldea.** La boda de mi mejor amigo.
- Konpartsa C taldea.** Demoda.
- Konpartsa D taldea.** Inauterietako mus txapelketa.

har dira. Bestalde, Udalak gordeztea nahi dutenek, plataformak garbian —gorde nahi den materiala gainean duela—, paper handi batean, erraz ikusteko moduan, jabearen izena eta telefonoa jarri behar dute.



**Konpartsa B taldea.** Umorea ez zen faltako eta lagunik ere ez 'La boda de mi mejor amigo' konpartsan: ezkonberriak, apaiza, lekukoak... edozein ezkontzatan bezala. HITZA



**Konpartsa D taldea.** Musekoa ez dakigu, baina kopako zaldunak jaso du Inauterietako txapela. LEIRE MONTES

**LAN ESKAINTZA: BILTEGIZAINA**

Tolosara inguruan kokaturiko enpresak biltegizaina behar du

**Eskatzen da:**

- Gai mekanikoetan jakinduria minimoa (planoak interpretatzeko gai izatea)
- Fenwich-a erabiltzen jakitea • Gida baimena (B) • Ikasketa ertainak
- Pertsona ordenatua eta txukuna • Lanerako gogoa

**Interesatuak bidali kurrikuluma Villabonako 86 posta kutxatilara**

Nafarroa etorb, 11 • Tel.: 943 65 12 64

Emeterio Arrese, 5 • Tel.: 943 65 56 21

**OSKI**

OINETAKOAK • JANTZIAK TOLOSA GAZTEA

**TOLOSALDEA GOIMAILAKO L.H. INSTITUTUA**

**WEB ORRIEN DISEINU ETA PROGRAMAZIOA**

IKASTAROA (TXEINBIDE)

IRAUPENA: 210 ordu.

NORI ZUZENDUA: Langabezia dauden gizon nahiz emakumeentzat.

PROGRAMA:

- 1.DREAMWEAVER MX (40 ordu)
- 2.FLASH MX-EKIN ANIMAZIOA (50 ordu)
- 3.PHOTOSHOP (30 ordu)
- 4.JAVASCRIPT ETA DHTML (40 ordu)
- 5.ASP (50 ordu)

LANTEGIETAKO PRAKTIKAK: 100 ordu

DIRUZ LAGUNDUA: Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia eta Turismo Departamentua

Matrikula [www.egokilan.com](http://www.egokilan.com), Ikastaro hasiera, 2005eko otsailaren 21ean

Informazioa ikastetxean, telefonoa: 943 65 11 47

**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Alegia.** *Berdinen arteko erasoa.* Bihar, 17:00etan, Kultur Etxeko batzar aretoan, Amaia Agirre Muñoaren eskutik.

**Anoeta.** Odol ateratzea. Bihar, 19:00etan, anbulategian.  
**Baliarrain.** Mus txapelketa, 16:00etan, Harkaitz elkarteak antolatuta. Izen-ematea 12 euro bikoteko.

**Tolosa.** Tolosaldeko Eskolarteko Xake Txapelketa. Elkartearen egoitzan (plaza Berria 1, behe), 11:00etatik 13:00etara.  
**Tolosa.** Poca-Tripa txaranga, Txilaba Elkartearen konpartsa eta Amaro azokako talde bat lurreamendi Egoitzara joango dira goizean, Piñata Igandea dela eta.  
**Tolosa.** Iturriza jubilatuen elkarteak dantzaldia antolatu du arratsaldean, Jesus musikariarekin eta Txilaba konpartzarekin.  
**Villabona.** Jesusen Bihotza


Ikastolak antolatuta eta gurasoei zuzenduta, *Drogomenpekotasunaren prebentzioa.* Etzi, Gureako erakusgelan, 18:00etan.  
**Zizurkil.** Korrika batzordekoek bilera egingo dute etzi Atxulondo Kultur Etxean, 19:30ean. Asteartero dute hitzordua.  
**GUARDIAKO FARMAZIAK**  
**Tolosa.** Gaur: Bonte C. Korreo kalea, 20. 943 67 6 13. Bihar: Olarreaga J. Martin Jose Iraola,

10. 943 67 24 38.  
**Leitza.** Larraia M.I. Elbarren, 95. Telefono: 112. Bihar: Plaza M. Elbarren, 36. Telefonoa: 112.

**ZINEMA**

**Tolosa. Closer.** 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean, Leidorren. Bihar eta etzi (asteartea, ikuslearen eguna), 19:30ean eta 22:30ean.  
**Villabona. Sorgin bat etxean.** 17:00etan hasita, Gurea aretoan. Euskaraz, haurrentzat. Sarra: 2,5 euro.

**ZORION AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN**  
**Irati Lizarraga.**  
16 urte. Familiaren partetik, ondo pasa.

**ANIMO AGURRA**  
Zuekin gaude, beti dispertsioaren aurka. Pilar Esain.



**URTE ASKOAN**  
**M. Angel Mariezkurrena.**  
Ainhoaren partez, zorionak! Urteak goraka baina zu inoiz baino gazteago.



**ZORIONAK**  
**Amona Joxepa (Abaltzisketa).**  
Gaur 100 urte. Bere biloba Larraitzen partetik.

**HITZA,**  
zorion agurren tartea

HITZAREN egoitzetara:  
Araba etorbidea, 5 behea  
**TOLOSA**  
Udaletxeko bulegoa  
**LEITZA**

Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri.  
Mila esker!

**nolako ikasketak, halako lana\***

\* Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak egindako ikerketaren arabera, MONDRAGON UNIBERTSITATEAN ikasitakoaren %90,7ak bere ikasketekin bat datorren lanpostua lortzen du; eta gainera, batz bestek bi hilabeteren buruan.

**PILOTA PARTIDUAK**

aspepelota.com

Capellan - Nalda III.a  
Chafee - Eulate

Gonzalez - Lasa III.a  
Del Rey - Pascual

Berraondo - Zubieta  
Baleztena - Urberuaga

**Tolosako Beotibar pilotalekuan**  
**Otsailak 14 astelehena**  
**arratsaldeko 16:30ean**